

LOKAL BATEN ERRENTAMENDUA KONTRATATZEKO BALDINTZAK, ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN HERRITARREN ARRETA ETA INFORMAZIO ZERBITZURAKO BULEGOA HARTZEKO ERABILIKO DENA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak lokal bat behar du, alokairu erregimenean, etxebizitzaren arloko herritarren arreta eta informazio zerbitzua hartzeko, egungo kokalekuaren ordezkari espazio gisa. Horretarako, dokumentu honetan zehazten diren ezaugarriak beteko dituzten bulegoak beharko ditu.

Berariaz jasotzen da errentan hartutako higiezina edozein udal organo edo zerbitzuko edo lotutako edozein organo edo zerbitzuko erabili ahal izango duela.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, eta itundutako denbora amaitu aurretik, edo legezko edo kontratu bidezko luzapenak amaitu aurretik, zerbitzuak —edo errentamenduan hartutako higiezina okupatzen duen beste udal zerbitzu batek— higiezina libre uzten badu, Erakundeak beste udal zerbitzu edo organo bat kokatu ahal izango du bertan, eta errentatzaileak nahitaez onartu beharko du ordezkapen hori, errentaren igoera eragin gabe.

2.- KONTRATAZIO ORGANOA

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluko presidentea da kontratazio organoa.

3.- ESKAINI BEHARREKO LOKALAREN EZAUGARRIAK

- Gutxieneko azalera
 - ✓ Lokalak gutxienez 70 m²-ko azalera izan beharko du.

- Eskaini beharreko lokalaren baldintza fisiko minimoak
 - ✓ Lokalak beheko solairuan egon beharko du eta sarbidea kalean bertan izan beharko du; gainera, zoruko, hormetako eta sabaietako akaberak egokiak izango dira berehala bulego gisa erabili ahal izateko.
 - ✓ Instalazio egokiak izan beharko ditu eta informatikako eta berokuntzako tresneria instalatzeko behar besteko potentzia izango duen telefono hornidura eta hornidura elektrikoa bermatuko du.
 - ✓ Langileek erabiltzeko komunak izan beharko ditu.
 - ✓ Bulego erabilerako udal lizentzia eduki beharko du, edo erabilera lizentzia hori berehala, obrarik egin gabe, lortzea ahalbidetuko duten baldintzak izan beharko ditu.
 - ✓ Irisgarritasun baldintzak eta suteen kontrako babesari eta isolamendu akustikoari buruzko lege zehaztapenak beteko ditu, baita Eraikuntza Ordenantza Osagarrietan eta aplikatzekoa den beste edozein ordenantzatan jasotako legezko baldintzak ere.

- Kokalekua
 - ✓ Erdialdea, Alde Zaharra, Gros, Amara eta Atotxa.

- Etxegintzarako alokairuaren hileko errenta
 - ✓ Hileko alokairuaren prezio maximoa 4.500 €-koa (LAU MILA BOSTEHUN EUROKOA) da, BEZa gabe.
 - ✓ Prezioaren kontzeptuko zenbatekoan, errenta ez ezik, beste edozein kontzeptu ere barnean hartzen dira, hala nola komunitate gastuak, konponketak, zergak, tasak eta abar. Dena dela, ez dira horniduren ondoriozko kontsumoak barnean hartzen, horiek erabiltzailearen kontura izango baitira.
 - ✓ Hileko errenta KPIaren arabera eguneratuko da errentamenduaren hirugarren urtetik aurrera.
- Egokitzea
 - ✓ Lokalak guztiz egokituta egon beharko du, haren instalazioak funtzionamendu egokian eta bulego gisa berehala erabiltzeko moduan.
- Errentamenduaren iraupena
 - ✓ Errentamenduak 2 urteko iraupena izango du eta beste 2 urtez luzatu ahal izango da, erakundeak nahi izanez gero. Erakundeak eskatu eta berehala hasiko da.

4.- ESKAINTZAK AURKEZ DITZAKETEN PERTSONAK

- Higiezinaren jabe diren pertsona fisikoak edo juridikoak.
- Jabeen ordezkarietan diharduten profesionalak.

5.- ARGITALPENA

- Eskaintzak aurkezteko gonbidapen hau udalaren web orrian argitaratuko da.

6.- ESKAINITAKO LOKALAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Lokala adierazitako zerbitzua hartzeko egokia den hartuko da kontuan, betiere honako irizpide hauen arabera: kalitatea-prezioa erlazioa, kokalekua, instalazioak, akaberak, argiztapen naturala, kaleko baoen kopurua eta tamaina, barneko banaketa eta lokalaren antolaketa aukerak, Etxegintzaren beharren arabera.

7.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Gutunazal itxi bat aurkeztuko da eta bertan dokumentazio hau jasoko da:

- 1) Aurkezten duenaren nortasuna eta, hala badagokio, betetzen duen ordezkari eta edo agindu profesionala.
- 2) Eskaera eredua, I. eranskinaren arabera.
- 3) Donostiako Etxegintzarekin kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla adierazteko eredua, II. eranskinaren arabera.
- 4) Hala badagokio, eskaintzen den lokalaren dokumentazio grafikoa eta deskribatzailea eta baldintzak, hala nola:
 - Lokalaren helbidea eta identifikazio datua.

- Barne banaketaren planoak edo krokisak.
- Memoria deskribatzailea, jasoko dituen lokalaren kokalekua, ezaugarriak, azalera, banaketa, hornidurak, instalazioak, materialak eta abar.
- Lokalaren fatxadaren eta barrualdearen argazkiak.

8.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Deialdiaren argitalpenean zehaztuko da.

OHARRAK

Proposamenen balorazioa errazteko, lizitatuzaileek proposatutako lokalera sartzea ahalbidetu beharko dute.

I. ERANSKINA.- ESKAINTZA EREDUA.

Jauna/andrea

NAN

helbidea

hau ordezkatzuz (baldin badagokio)

helbidea

IFZ

telefonoa

Helbide elektronikoa

"ETXEGINTZA ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARRETA- ETA INFORMAZIO-ZERBITZURAKO LOKAL BATEN ALOKAIJUAREN KONTRATAZIOA" arautu behar duten baldintzak ezagututa, horien eduki osoa onartzen du, eta honako eskaintza hau aurkezten du:

Eskaintako lokala (lokalaren helbidea eta identifikazioa):

Lokalaren alokairuaren hileko prezioa eurotan, BEZa kanpo (letrekin eta zenbakiekin):

Dagokionean, eskaintzailearen kontu egin beharreko obren deskribapena, obrak alokairurako eskaintako prezioan sartuta egongo direlarik:

.....(e)n, 2019ko ren (e)an

(Sinadura)

II. ERANSKINA.- DONOSTIAKO ETXEGINTZAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO EREDUA

Jauna/andrea

NAN

helbidea

hau ordezkatzuz (baldin badagokio)

helbidea

IFZ

telefonoa

Helbide elektronikoa

"ETXEGINTZA ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARRETA- ETA INFORMAZIO-
ZERBITZURAKO LOKAL BATEN ALOKAIRUAREN KONTRATAZIOA" arautu behar duten baldintzak
ezagututa,

Bere erantzukizunpean adierazten du:

1. Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzarekin kontratatzeke eskumena dauka, jarduteko erabateko ahalmena dauka eta ez dago sartuta sektore publikoarekin kontratatzea debekatzen duten inolako egoeratan, zeinak SPKLTBren 60. artikuluan zerrendatzen diren.
2. Egunean dago bere zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan.
- 3.- Erakundeak lizitazio honen inguruan egin behar duen edozein jakinarazpen jasotzeko lehentasuneko bitartekoa helbide elektroniko hau da (irakurri eta jaso izanaren baieztapenarekin):
.....

..... (e)n, 2019ko ren (e)an

Izpta: